

# HEZKUNTZAREN KALITATEA ETA ELEBITASUNA

Xabier Etxague Alkalde

---

---

Cuadernos de Sección. Educación 8. (1995), p. 85-113  
ISBN: 84-87471-94-3  
Donostia: Eusko Ikaskuntza

*Elebitasunari eta hezkuntzan buruzko txostenaren bigarren zatian, Xabier Etxaguek, gaiaren inguruko legeria ikuskatuz gero, euskal eskola publikoaren eutonomiarako (pedagogikoa eta funtzionala) bere iritziz ezaugarri gailenak izan behar dutenak seinalatzen ditu.*

*En la segunda parte de la ponencia sobre educación y bilingüismo, Xabier Etxague comienza repasando la legislación existente sobre esta materia para terminar apuntando los que él considera caracteres más relevantes para la autonomía (pedagógica y funcional) de la escuela pública vasca.*

*Xabier Etxague starts the second part of the paper on education and bilingualism by going over the legislation existing on this matter and ends by mentioning the characteristics which he considers most relevant for the autonomy (pedagogy and functional) of Basque state schools.*

## «Hezkuntzaren kalitatea» kontzeptua, testuinguru elebidunean

Gai hau jorratzen hasterakoan, hausnarketa labor bat egitea nahi nuke, gu bizi garen testuinguru elebidun honetan, hezkuntzaren kalitatea kontzeptuari legokiekeen interpretape-naz, Alegia, nola interpretatzen dugun, geure gizarte testuinguruan, kalitate kontzeptua.

Honez gero jakin badakigu kalitate kontzeptua oso konplexua dela. Hala ere, itzulingu-ru teoriko gehiegirik egin gabe, kalitateari buruz eskaini den teorizazio ulergarri eta zehatz bati helduko diot, eta saiatuko naiz ondotik, elebitasunari dagokion hezkuntz ger-taera soziala, teorizazio honen bidez aztertzen.

Hainbat egilek (De La Orden, 1988;) Hezkuntzaren Kalitatea kontzeptualizatu dute, jorratzen ari garen kontzeptuaren baitan hiru dimentsio nagusi bereiziz eta, aldi berean, elkarren artean integratuz. Alegia, hezkuntzaren kalitatea interpretatzeko bana ezinezko hiru faktore bereizten ditu: funtzionaltasuna, efikazia eta efizientzia. Kontzeptualizazio honi jarraikiz, argituko ditugu hiru dimentsio hauek:

Funtzionaltasuna sistemaren xede eta emaitzen arteko koherentzia bezala defini daiteke. Hots, hezkuntz sistema baten xedea komunitatearen eskakizunei erantzutea da; beraz funtzionaltasuna ikastetxeak gizarte testuinguruaren exigentziei erantzuteko eta egokitzeko gaitasuna bezala interpreta daiteke.

Efikazia ikastetxe batek aurrikusi dituen helburu eta emaitzen arteko koherentzia bezala defini daiteke. Alegia, helburuak erdiesteko gaitasuna da efikazia.

Efizientzia honela defini daiteke: emaitzak, eta hauexek erdiesteko inbertitu diren prozesu eta baliabideak, elkarren artean duten koherentzia. Hau da, ikastetxe batek bere helburuak lortzeko inbertitzen dituen prozesu eta baliabideek adierazten digute honen efi-zientzia.

Dena den ere, kalitateari buruz aurkeztu dugun kontzeptualizazio honetan agertzen diren faktoreetatik, enpresa munduan gero eta garrantzi handiagoa hertzen ari da fun-tzionaltasunaren ideia. Hau da, produktu baten kalitatea kontsumitzaileek beraiek defini-tzen dute. Ez da hainbeste enpresari edo teknikoaren iritzia, baizik eta kontsumitzailearen eskakizunarekiko egokitasuna, eta kontsumitzaile honek produktuari buruz duen pertzepzioa. Enpresa gizon emakumeak ahalegintzen dira kontsumitzaileen beharrak, eskakizunak eta iritziak jasotzen eta interpretatzen, eta beren produktuen ezaugarriak hauen araberez egoki-tzen. Hots, kalitatea kontsumitzailearen itzarobideak betetzean datza.

Noski, produkzio prozesuaren kostea kontutan hartu behar da, beti ere muga onarga-rrien barruan sartu behar delarik; bainan ezin dugu ahaztu mendebaldeko kontsumitzaileari ez zaiola hainbeste axola gehixeago ordaintzea baldin eta «kalitate onekoa» bada.


Oraingoan saia gaitezen kontzeptualizazio hau gure testuinguru elebidunaren pers-pektibatik interpretatzen.

- Funtzionaltasunari dagokionez, elebitasunaren ikuspuntutik, zein eskakizuni erantzun behar dio ikastetxe batek funtzionala izateko? Zer eskatzen dio gizarteak ikastetxeari?
- Efikaziari dagokionez, zer ahalbide dauka ikastetxeak bere helburuei erantzuteko? Zeintzu dira faktore eraginkorrenak eta erabilgarrienak helburuak erdiesteko? Hau da, zeintzu dira faktore eraginkorrenak efikaza izateko?
- Efizizentzian dagokionez, zein da ikastetxearen autonomia esparrua faktore eraginkorrek erabil ahal izateko? Non daude ikastetxearen mugak, bere lana antzua izan ez dadin?

Galdera hauei erantzuteko hartuko dugun ardatz teorikoa sistemei buruzko kontzeptualizazioa izanen da. Hau da, galdera hauen erantzuna sistematizatzeko ikastetxea giza-sistema bezala kontzeptualizatuko dugu.

Hona gure analisiak adieraz dezakeen grafikoa:

### IKASTETXEA, GIZA SISTEMA IREKIA



Ikastetxea sistema irekia bezala ulertzen dugu. Eredu sistemiko honetan, ikastetxeak bere adierazgarritasuna lortzen du ingurunearekin elkarerlazioan, honek Ikastetxearen iharduera baldintzatzen dituzten azpisisistema ekartzen dituelarik. Beraz Ikastetxea sistema, ingurunearen suprasisteman txertatua eta kateatua aztertzen dugu. Edozein sisteman bezala, ikastetxea sistemaren barruan hiru oinarritzko fase edo azpisisistema topatzen dugu: sarrera, prozesua edo elkarrekintza, eta irteera edo emaitza. Oinarritzko hiru fase hauei berrelikapen ondorioa erantsi behar diegu. Honen bidez sistemak irteerako informazioa erabiltzen du sarrera edoleta prozesuak egokitzeko.

-sarrerak azpisisistema. Azpisisistema honetan Ikastetxearen planifikazio eta garapen *prozesuak baldintzatzen dituzten* sistemak agertzen dira: batetik, ingurunearen ekarpenak osa dezaketen azpisisistema, eta bestetik ikastetxearen baliabideak azpisisistema.

- prozesuak azpisistema. Azpisistema honetan ikastetxeko bertako errealitate dinamikoa isladatzen dugu. Batetik erakuntza azpisistema, eta bestetik curriculum azpisistema. Noski biak elkarren osagarriak eta elkarrekin kateatuak, Erakuntzak, curriculum gauzapena eta garapena erreztu behar du; eta kontrako norabidean ere curriculum-aren garapenak erakuntzaren egituraz baliatu behar du eraginkortasuna lortzeko. Bi azpisistema hauen elkarren osagarritasuna eta kateamendua ezinbestekoa da efikazia lortzeko.

- produktuak azpisistema. Azpisistema honetan, finkatutako helburuen erdiespen maila, erdiespen maila honen zergaitiak, eta guzti honen eragina bai ikastetxean bertan bai ingurunean, isladatzen dugu.

- berrelikapena. Ikastetxearen sistemak, beste edozein sistema bezala, berrelikapena behar du bere prozesuak egokitzeko. Berrelikapenik ez bada sistema isolatzen da ingurunearekiko loturarik galduz. Beraz, dimensio dinamiko honek ikastetxeak bere berrelikapenerako eta egokipenerako burutzen dituen prozesuak isladatzen ditu.

Ikastetxearen sistema honetan, zeintzu faktorek osatzen dute azpisistema ezberdin hauek? Zeintzu faktorek eragiten dute ikastetxearen kalitatean?

Kaliatatearen faktoreak zehaztea erreztan duten hainbat eredu eta eraikuntza teoriko aztertu ondotik, gure testuinguruaren arabera egiten dugun zehazpena (gure ereduak), aurkeztuko dugu.

Ikastetxea sisteman ardazturiko analisia  
KALITATEAN ERAGITEN DUTEN IKASTETXEKO  
AZPISISTEMEN IDENTIFIKAZIOA

---

**AZPISISTEMAK            FAKTOREAK**

---

**SARRERAK AZPISISTEMA**

Ingurunearen ekarpenak:	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Legedi markuaren ekarpenak.</li> <li>- Ikastetxearen bilakaera (gure testuinguruan hizkuntz bilakaerak adierazgarritasun handia dauka)</li> <li>- Testuinguru linguistikoa. Hizkuntz(ar)en erabilera eskola kokatuta dagoen inguruan.</li> <li>- Partehartzen duten hizkuntzen status-a.</li> <li>- Testuinguru kulturala.</li> <li>- Testuinguru sozioekonomikoa.</li> <li>- Komunitatearen hizkuntza jokabideak.</li> <li>- Familien hizkuntza jokabideak. Hizkuntz(ar)en erabilera etxean.</li> <li>- Ikaslearen ama-hizkuntza. Ikaslearen sarrerako hizkuntza(k). Ikaslearen hizkuntza eta sistemaren hizkuntza nagusiaren arteko kointzidentzia edo ez kointzidentzia.</li> <li>- Ikaslearen hizkuntza jokabideak. Beste hizkuntzaren hitzuneakiko jokabideak.</li> <li>- Ikaslearen ezaugarri akademikoak: aurrekari eskolarrak, itzarobideak, motibazioa.</li> </ul>
----------------------------	--

---

---

**AZPISISTEMAK**

**FAKTOREAK**

---

- Sistemaren helburua: bi hizkuntzei heltzea / bakar batekin gelditzea (elebakartasunerako orientazioa)
- Baliabideak:
- Baliabide kurrikularrak: Ikastetxeko Hezkuntz Proiektua.
  - Antolakuntzazko baliabideak: Barne araudia, Antolakuntza eta iharduera araudia.
  - Testuinguru baliabideak.
  - Baliabide ekonomikoak.
  - Giza baliabideak: dozentek eta ez dozentek. Hezkuntza elebidunari buruzko formazioa.
  - Irakaslegoaren hizkuntza jokabideak. Pentsamendu inplizituak.
  - Kanpoko laguntzak.

**PROZESUAK AZPISISTEMA**

- Antolakuntza:
- Irakasle taldearen antolakuntza.
  - Irakaslegoaren antolakuntza hizkuntzen araberez.
  - Klaustroa: partaidetza, eginkizuna.
  - Koordinatzaileen eginkizuna.
  - Ikasle taldeen antolakuntza.
  - Ikasleen partaidetza.
  - Zuzendaritza mota eta tankera
  - Zuzendaritza taldearen eginkizunak: zuzendaria, ikasketa burua, idazkaria, e.a.
  - Gestio ekonomikoa.
  - Gestio administratiboa.
  - Espazio eta denboraren antolakuntza.
  - Eskola kontseilua: hautaketa, partaidetza, eginkizuna.
  - Barne araudia.
  - Argitasuna, ordena eta disziplina.
  - Guraso eta komunitatearen partaidetza. Harremanak
  - Inguruko erakundeekiko harremanak.
  - Elkarrekintza komunikatiboa: irakasleen artean, irakasle eta ikasleen artean, irakasle, ikasle eta gurasoen artean.
  - Ikastetxeko giroa (klima).
- Curriculum-a:
- Curriculum planifikazioa, garapena eta ebaluaketa: ikastetxeko proiektu kurrikularra, urteko plangintza, programakuntzak, egokipen kurrikularrak.
  - Curriculum ezkutua, Ondorio ez-aurrikusiak.
-

## AZPISISTEMAK

## FAKTOREAK

- Elkarrekintza kurrikularra: maiztasuna, nolakotasuna, eraginkortasuna.
- Hizkuntzen erabilpen kurrikularra: hizkuntz proportzioak, proportzioen garapena, irakurketa eta idazketarako hizkuntza, ikasarloak eta hizkuntzen arteko loturak.
- Ikastetxeko komunikazio hizkuntza. Hizkuntz giroa.
- Ikastetxearen orientazio kulturala.
- Metodologia didaktikoa.
- Tutoretza eta orientazioa.
- Berrikuntza.
- Irakasle goaren atxekimendua eta inplikazioa.
- Ikasleen atxekimendua eta inplikazioa. Ikasleen jokabideak lanaren aurrean, Motibazioa.
- Eskolaz kanpoko ekitaldiak: eskaintza partaidetza, giroa.
- Eskolaz kanpoko ekitaldien hizkuntza.
- Ikasleen autokontzeptua. Ikasleen pertzepzio metalinguistikoa.
- Ikasleen L2-arekin eta L2-aren jatorrizko hiztuneko jokabideak.

## PRODUKTUAK AZPISISTEMA

## Emitzak:

- Emitza akademikoak.
- Ikasleen hizkuntz jokabideak.
- Ikasleen promozio akademikoa.
- Ikasleen promozio profesionala.
- Autoebaluaketa gaitasuna.
- Ikasketa teknikak.
- Aspektu formagarriak: baloreak, gizartearekiko jokabideak, partaidetza, ardura sozialak hartzea, autonomia, gaitasun kritikoa, sormena.
- Eskola uzteak, eskola porrota.
- Hobekuntza profesionala. Kultur hazkundea.

## Eragina gizartean (inpaktoa):

- Ikerketa.
- Dokumentazioa eta argitalpenak.
- Hezkuntza komunitatearen ikastetxearekiko satisfakzioa.
- Komunitatearen hobekuntza kulturala.
- Komunitatearen hizkuntz jokabideak.

Eredua azaldu ondotik, honen garapena eta gure ingurunearekin izan ditzakeen inplikazioak eta loturak aztertzen saiatuko gara.

Eredu honetan ikastetxearen ikuspuntutik abiatu aurretik diren hainbat faktore, gure komunitatearen hezkuntza egoerarekin elkartzen ahaleginduko gara. Elebitasuna ba-

tetik, eta Euskal Komunitate Autonomoaren hezkuntza erregimen juridikoa bestetik, gure analisiaren ardatz nagusiak izango dira.

Ikastetxearen sistema honetan, elebitasunari dagokionez, zeintzu dira gizartearen eskakizunak? Zertan datzate ingurunearen ekarpenak? Izan ere faktore hauen identifikazioak ikastetxearen funtzionaltasunerako ezinbestekoa da. Ikastetxeak ingurunearen ekarpenak, honen barruan eskakizunak direlarik, idantifikatu eta sisteman kateatu behar ditu, kalitatearen dimentsio ezinbestekoa den funtzionaltasuna lortzeko.

Zer eskatzen dio gizarteak gure Hezkuntza Sistemari?

Galdera hau erantzuterakoan orokorrenetik zehatzenerako azterbidea burutuko dugu. Maila orokorrean gure lege markua daukagu. Izan ere sistema demokratiko batean gizarte ordezkariari dagokie gizartearen helburu eta asmo nagusiak jasotzea eta interpretatzea, garantiazko marku juridiko batean integratuz. Esan dezakegu legedia, gizarteak berak bere buruari demokratikoki ezarritako markua dela, bere asmo eta nahiak elkarren errespetoan bidera ahal izateko.

### SARRERAK AZPISISTEMA. FUNTZIONALITASUNA

Funtzionaltasuna: ingurunearen ekarpenak

- Legedi markuaren ekarpenak
- Ikastetxearen bilakaera (gure testuinguruan hizkuntz bilakaerak adierazgarritasun handia dauka)
- Testuinguru linguistikoa. Hizkuntz(ar)en erabilera eskola kokatuta dagoen inguruan
- Partehartzen duten hizkuntzen status-a
- Testuinguru kulturala
- Testuinguru sozioekonomikoa
- Komunitatearen hizkuntza jokabideak
- Familien hizkuntza jokabideak. Hizkuntz(ar)en erabilera etxean.
- Ikaslearen ama-hizkuntza. Ikaslearen sarrerako hizkuntza(k). Ikaslearen hizkuntza eta sistemaren hizkuntza nagusiaren arteko kointzidentzia edo ez kointzidentzia.
- Ikaslearen hizkuntza jokabideak. Beste hizkuntzaren hiztunekiko jokabideak
- Ikaslearen ezaugarri akademikoak: aurrekari eskolarrak, itzarobideak, motibazioa
- Sistemaren helburua: bi hizkuntzei heltzea / bakar batekin gelditzea (elebakartasunerako orientazioa)

Hots, testuinguru honetan baieztatu behar dugu legedi sistema uztartuta dagoela gainerako giza sistemekin, hezkuntza sistema hauetako bat delarik.

### Legearen ekarpena

Egin dezagun birpasa orokorra ikastetxeak duen marku baldintzatzailearen gainetik. Lehenik eta behin birpasako dugu 1978-ko Konstituzioak, hezkuntzari buruz dioena:



Konstituzioaren 27. artikuluan Hezkuntzaren esparru espezifikoak araupezen da:

Artículo 27

1. Todos tienen el derecho a la educación. Se reconoce la libertad de enseñanza.
2. La Educación tendrá por objeto el pleno desarrollo de la personalidad humana en el respeto a los principios democráticos de convivencia y a los derechos y libertades fundamentales.
3. Los poderes públicos garantizan el derecho que asiste a los padres para que sus hijos reciban la formación religiosa y moral que esté de acuerdo con sus propias convicciones.
4. La enseñanza básica es obligatoria y gratuita.
5. Los poderes públicos garantizan el derecho de todos a la Educación, mediante una programación general de la enseñanza, con participación efectiva de todos los sectores afectados y a la creación de centros docentes.
6. Se reconoce a las personas físicas y jurídicas la libertad de creación de centros docentes, dentro del respeto a los principios constitucionales.
7. Los profesores, los padres, y, en su caso, los alumnos intervendrán en el control y gestión de todos los centros sostenidos por la Administración con fondos públicos, en los términos que la ley establezca.
8. Los poderes públicos inspeccionarán y homologarán el Sistema Educativo para garantizar el cumplimiento de las leyes.
9. Los poderes públicos ayudarán a los centros docentes que reúnan los requisitos que la ley establezca.
10. Se reconoce la autonomía de las universidades en los términos que la ley establezca.

Beraz, Konstituzio honek herritar guztientzat hezkuntzarekiko oinarritzko eskubideak ezartzen ditu:

- Hezkuntza integrala jasotzekoa
- Hezkuntzaren derrigorrezkotasuna
- Hezkuntzaren dohaintasuna
- Baita ere, Irakasle, guraso eta ikasleen partaidetza demokratikoa sistemaren kontrola eta gestioan bermatzen du.

Beste aldetik, administrazio publikoaren eskuharmena sustatzen du:

- Konstituzioak hezkuntzaren derrigorrezkotasuna ezartzen du. Alegia, umeak derrigorputa daude hezkuntza sisteman heziak izateko.
- Irakaskuntzaren programakuntza orokorra administrazioari dagokio, estatuko ikastetxe guztientzat derrigorrezkoa delarik.
- Administrazioaren esku uzten du ere sistemaren ikuskaritza nagusia, eta honen homologazioa (legeztatzea)
- Ikastetxeak ekonomikoki laguntzea, administrazioaren zeregina da.

Análisi labur honek adierazten digu potere publikoaren eskuharmena garrantzitsua dela. Izan ere administrazioaren baitan dauden hainbat eskuduntza oso lotuta daude hezkuntzaren kalitatearekin: programakuntza orokorra, ikastetxearen homologazioa, ikuskaritza nagusia eta sustapen ekonomikoa. Egoera honen aurrean zenbaitek gehiegizko eskuharmena eritziko dioten bitartean, beste zenbaitek egokitzat joko dute.

Euskal Herriko Autonomia Estatutuak (Euskal Herrirako Autonomia Estatutuaren 3/1979 abenduak 18. Lege Organikoa), Atariko Buruan, 6gn. artikuluan zera dio:

1. Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.

2. Komunitate Autonomiko Erakunde amankomunek Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaren ñabardurak kontutan izanik, bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dute, beraien ofizialtasuna erregulatuz, eta beraien ezagutza ziurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabaki eta baliaraziko dituzte.

3. Hizkuntza dela eta ez da inor gutxietsiko.

(....)

Hezkuntza esparruan ebatzi diren ondorengo legeek Autonomia Estatutuak xadatutakoa zehazten eta garatzen dute.

Legedi marku honek adierazten dituen xedeek ez dute inolako zalantzarik eskaintzen: batetik ikaslegoaren formazio elebiduna xedatzen eta arautzen da. Eta bestetik, hizkuntza sistema elebiduna bilakatzeko araubideak finkatzen dira.

Bere gaurkotasuna dela medio, aipatuko dugu Euskal Eskola Publikoaren legeak (Otsailaren 19ko 1/1993 legea, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa) dioena:

I. Idazpurua. Euskal eskola publikoaren hastapen orokorrak eta helburuak

3. atala.

1. Euskal eskola publikoa, horko ikastetxe bakoitza, anitza, elebiduna, demokratikoa da, euskal gizartearen zerbitzura dagoena, gizarte eta kultura mailan bere ingurunean errotua, partaidetzazkoa, ezberdintasunen berdintzailea eta dibertsitateen bateratzailea.

2. Hona hemen euskal eskola publikoaren helburuak: (...)

g) Ikasle guztiek baldintza beretan, derrigorrezko irakaskuntza-aldia bukatzean bi hizkuntza ofizialen ezagupen praktikoa izango dutela bermatzea, euskararen erabilera bultzatuz eta normalkuntzari lagunduz.

h) Euskal Herriko kide direnez ikasleek duten kultura-nortasuna mamitzen laguntzea, ikasleak beren geografiazko, girarte-ekonomiazko eta kulturazko ingurunean errotzea bultzatuz.

III. Idazpurua. Euskara euskal eskola publikoan

18. atala

Euskara eta gaztelania nahitaez sartuko dira euskal eskola publikoan gara daitezen irakaskuntza-programetan, bi hizkuntzen ahozko zein idatzizko ulermena eta adierazmena benetakoa izan eta gutxienez ohizko harremanetarako eta erabilerako hizkuntza gisa erabili ahal izan daitezen.

Beraz, elebitasunari dagokionez jakin badakigu gizarteak, orokorki, hezkuntza sistemari ikasleak bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko adina erakus diezaion, eskatzen diola. Hots, ikastetxe batentzako kalitatezko hezkuntza eskaintzea, eskakizun orokor horri erantzutean datza.

Erreflexio orokor honetan kontutan hartu behar dugu elebitasunaren esparrua oso zabala dela. Gizarteak agertzen duen eskakizun orokor honek, tokian tokiko, ikastetxean

ikastetxeko komunitatearen araberrako ñabardurak izango ditu. Hizkuntza baterantz edo besterantzeko orientazioa, asignaturekiko hizkuntza tratamendua, adierazpen kulturalak, ...faktore guzti hauek itxuratu eta zehaztuko dute tokian tokiko gizarte inguruneak hezkuntza sistemari eta ikastetxeari egiten dion eskakizuna. Funtzionala izatekotan ikastetxeak guzti hauek interpretatu eta integratu behar ditu, bere baitako helburuak gizartearen helburuekin bat egiteko.

Funtzionaltasunari eusteko ikastetxeak oso kontutan hartu behar ditu «ingurunearen ekarpenak» izendatu dugun azpisisistema hau, zeren honen bidez ikastetxea gizarte tesuinguruarekin kateatzen baita.

### Baliabideak

- Baliabide kurrikularrak: Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua
- Antolakuntzazko baliabideak: Barne araudia, Antolakuntza eta iharduera araudia
- Testuinguru baliabideak
- Baliabide ekonomikoak
- Giza baliabideak: dozentek eta ez dozentek. Hezkuntza elebidunari buruzko formazioa.
- Irakaslegoaren hizkuntza jokabideak. Pentsamendu implizituak.
- Kanpoko laguntzak

Sarrerren dimentsian kokatzen den baliabideen azpisisistema honek zehazten du, neurri handi batean, ikastetxearen autonomia esparrua. Sistema honetan aurkitzen dira ikastetxeko garapen prozesuen faktore baldintzatzaile nabarmenak. Izan ere ikastetxeak dituen baliabide baldintzatzaile gehienak erlazinatuta daude administrazioak, eta gizarteak berak, ikastetxeari eskainitako, eta araututako, baliabideekin,

Bainan ikastetxeko baliabide zehatzak aztertu aurretik birpasa ditzagun laburki irakaskuntza eremua arautzen duten konstituzio ondoko legeak. Izan ere araudi honek ikastetxeak bere esku dituen baliabideak definitzen eta mugatzen ditu:

1985ko Uztailaren 3-ko L.O.D.E.-k (Ley Orgánica del Derecho a la Educación), aurre tituluaren 2gn. artikuluan zera dio:

«La actividad educativa, orientada por los principios y declaraciones de la Constitución, tendrá, en los centros docentes a que se refiere la presente Ley, los siguientes fines:

- a) El pleno desarrollo de la personalidad del alumno.
- b) La formación en el respeto de los derechos y libertades fundamentales y en el ejercicio de la tolerancia y de la libertad dentro de los principios democráticos de convivencia.
- c) La adquisición de hábitos intelectuales y técnicas de trabajo, así como de conocimientos científicos, técnicos, humanísticos, históricos y estéticos.
- d) La capacitación para el ejercicio de actividades profesionales
- e) La formación en el respeto de la pluralidad lingüística y cultural de España
- f) La preparación para participar activamente en la vida social y cultural
- g) La formación para la paz, la cooperación y la solidaridad entre los pueblos.»

Bestalde, «disposiciones adicionales» delako atalean, honako kontsiderazioak egiten ditu:

«Disposiciones Adicionales:

Primera. 1. La presente ley podrá ser desarrollada por las comunidades autónomas que tengan reconocida competencia para ello en sus respectivos estatutos de autonomía o, en su caso, en las correspondientes Leyes Orgánicas de transferencia de competencias. Se exceptúan, no obstante, aquellas materias cuya regulación encomienda esta ley al gobierno.

2. En todo caso, y por su propia naturaleza, corresponde al Estado:

- a) La ordenación general del sistema educativo.
- b) La programación general de la enseñanza en los términos establecidos en el artículo 27 de la presente ley.
- c) La fijación de las enseñanzas mínimas y la regulación de las demás condiciones para la obtención, expedición y homologación de títulos académicos y profesionales válidos en todo el territorio español.
- d) La alta inspección y demás facultades que, conforme al artículo 149.1.30 de la Constitución, le corresponden para garantizar el cumplimiento de las obligaciones de los poderes públicos.»

Beraz, honen araueraz ikusten dugu irakaskuntzaren programakuntza orokorra, gutxienezko edukiak eta tituluen banaketa besteak beste, estatuaren esku gelditzen direla. Agerian dago lege honek araututakoa Konstituzioan jasotzen diren hastapenen garapena dela.

Jakin, badakigu aspektu honek interpretazio ezberdinak sortarazi dituela. Batzuren-tzat, gutxienezko mailaren ezarpen eta kontrol honek berdintasun demokratikoaren ezinbesteko berma eta sustapena garatzen dituen bitartean, beste batzurentzat, estatuko herrialde ezberdinen ezinbesteko eskubideren murrizketa eta zentralismoaren ezarketa suposatzen du (Etxague, 1992).

Legedi honetan agertzen diren arau molde hauek, 1990.ko Urriaren 3-ko L.O.G.S.E.-k (Ley Orgánica de Ordenación General del Sistema Educativo), eta honen ondoko «Reales Decretos de desarrollo de la L.O.G.S.E.» izeneko araudiak, garatu dituzte. Lege honek ere Sistemaren antolaketa berria, Estatu osorako, arautzen du.

Arau honi dagokionez, lehenik aztertuko dugu lege honek Autonomiaren Hizkuntza Ofizialaren irakaskuntzarekin zein curriculum ezarpenarekin dituen inplikazioak.

Elebitasunari dagokionez, L.O.G.S.E.-ren honako atalak azpimarra daitezke: L.O.G.S.E.-ren bigarren kapituluan, 13. artikuluan zera esaten da:

«La educación primaria contribuirá a desarrollar en los niños las siguientes capacidades:

- a) Utilizar de manera apropiada la lengua castellana y la lengua propia de la Comunidad Autónoma (...).

Hirugarren kapituluan, 19. artikuluan:

«La educación secundaria obligatoria contribuirá a desarrollar en los alumnos las siguientes capacidades:

- a) Comprender y expresar correctamente, en lengua castellana y en la lengua oficial propia de la Comunidad autónoma, textos y mensajes complejos, orales y escritos (...).

26. artikuluan:

«El bachillerato contribuirá a desarrollar en los alumnos las siguientes capacidades:

a) Dominar la lengua castellana y la lengua oficial propia de la Comunidad Autónoma (...).

Irakaskuntz arloei buruzko aipamena egiterakoan, ez da bereizketarik egiten Gaztelania eta beste hizkuntzen artean.

Azter dezakegun bezala, konstituzioaren ondotik estatuko Parlamentuan onartutako irakaskuntza legeak, nahiz eta curriculum eskolarraren espazio garrantzitsua arautu (% 55-a, hizkuntza ofiziala duten komunitateetan), oso proposamen orohargarriak dira, tokian tokiko ezaugarrien arauerako egokipena erretzen dutelarik.

Hain zuzen ere, Autonomiak duen ahalmenari buruz Curriculum ezarpenean, Legeak zera dio:

#### TITULO PRELIMINAR

##### Artículo 4.º

2. El Gobierno fijará, en relación con los objetivos expresados en términos de capacidades, contenidos y criterios de evaluación del currículo, los aspectos básicos de éste que constituirán las enseñanzas mínimas, con el fin de garantizar una formación común de todos los alumnos y la validez de los títulos correspondientes. Los contenidos básicos de las enseñanzas mínimas, en ningún caso requerirán más del 55 % de los horarios escolares para las Comunidades Autónomas que tengan lengua oficial distinta del castellano, y del 65 % para aquellas que no lo tengan.

3. Las Administraciones educativas competentes establecerán el currículo de los distintos niveles, etapas, ciclos, grados y modalidades del sistema educativo, del que formarán parte, en todo caso, las enseñanzas mínimas.

Bestalde, legeak ez du ezer aipatzen eskolako hizkuntza behikularrari buruz. Hau dela eta legeak, nahiz eta gaztelaniaren irakaskuntza eta ikaskuntza derrigortu, ez du oztopatzen, behintzat, Euskarazko (edo beste hizkuntzazko) irakaskuntza.

Euskal Eskola Publikoaren legeak, LOGSE-n jaso eta araututako hastapen hauek garatzen ditu. Honetarako ikastetxeari hainbat eratze-tresna onartzea eta burutzea eskatzen dio. Aspektu hau bereiziki azpimarratu nahi dugu, zeren eta eratze tresna hauek oso zerikusi nabarmena dute sarrera dimentsioan kokatzen diren baliabideekin. Hau da, tresna hauek ikastetxea ingurunearekin kateatzen dute eta garapen prozesuak mugatzen eta baldintzatzen dituzte. Kalitatearen faktore ezberdinekin zerikusirik izan dezaketen tresna hauek, banan banan aztertuko ditugu. Oraingo parrafo hauetan Legeak egiten dituen aipamen orokorrak jasoko ditugu:

#### V. IDAZPURUA

##### EUSKAL ESKOLA PUBLIKOKO IKASTETXEEN AUTONOMIAZ.

#### I. ATALBURUA

##### ERABAKI OROKORRAK

27. atala

Euskal eskola publikoko ikastetxeek bermatuta dute pedagogia, antolaketa eta kudeaketako autonomia, indarrean dagoen legediaren esparruan eta lege honetan zein berau gara dezaten arauetan oharmandako modu eta neurrietan.

28. atala

1. Euskal eskola publikoko ikastetxeen autonomia, ikastetxeak epe erdirako iharduera-erren ondorengo eratze-tresnak onartu eta burutzen gauzatzen da. Hona eratze tresnok:

- a) Ikastetxearen hezkuntza-proiektua.
- b) Ikastetxearen ikasketa-proiektua
- c) Antolakuntza- eta iharduera-araudia
- d) Kudeaketa-proiektua

2.- Aurreko atalkian adierazitako eratze-tresnetan jasotako zehaztapenak urtez urte gauzatzea ikastetxearen egitekoa izango da, horretarako ikastetxearen urteko plana onartu beharko duela. Hona plan horren atalak:

- a) Irakaskuntzaihardueren egitaraua.
- b) Prestakuntza ihardueren, eskolaz kanpokoan eta osagarrikoen egitaraua.
- c) Urteko kudeaketa-egitaraua

3.- Ikastetxeak aurreko atalkian adierazitako programen urteko helburuan betetze-maila ebaluatuko duen txostena onartuko du; era berean atal honetan aipatutako bere aribidearen antolakuntzako baliabideetan egin beharreko aldakuntzak proposatu ahalko ditu txosten horretan.

Hau da bada, ikastetxearen baliabideak inguratzen eta definitzen duen marku orokorra. Ikusi dugun bezala zentralismo eta autonomiaren artean kulunka dabilen araudia da. Batetik, curriculum eta erakuntzako «gutxienezkoak» administrazioak finkatzen ditu (% 55-a Estatukoak), baina bestetik, ikastetxe bakoitzari proiektu pedagogiko propioa eta definitzailea osatzeko autonomia aitortzen zaio, beti ere finkatutako «gutxienezkoak» garrantzitzen direlarik.

Legediak baldintzatzen duen marku honetan kokatzen eta gestionatzen diren ikastetxeko baliabideak analizatuko ditugu.

Baliabide kurrikularrak. Ikastetxearen sisteman faktore hau giltzarria da; sarrera eta prozesuen arteko torloju kateatzailea. Ingurunearekin eta barruko dinamikarekin lotuta dago, gizartearen ezaugarriak eta eskakizunak identifikatuz eta jasoz, eta prozesuak egokituz eta bultzatuz. Faktore dinamikoa eta dinamizatzailea da.

Azal dezagun planteamendu hau.

Dagoeneko aski ezaguna dugu L.O.G.S.E.-ren curriculum planteamendua. Honen arabera hezkuntza curriculum-ak zehazpen maila ezberdinak dauzka. Lehenengo maila administrazioari dagokio; honetan administrazioak finkatutako gutxienezko helburuak eta edukiak esplizitatzen dira. Euskal Komunitate Autonomoan, horietaz gainera, ebaluaketa irizpideak ere boletin ofizialean agertu dira. Bigarren zehazpen maila ikastetxeari dagokio; honetan ikastetxeak administrazioak finkatutako Oinarrizko Curriculum-a bere giza inguru-arearen ezaugarrien eta baldintzen arabera egokitu eta osatzen du. Guzti honen esplizitazioa ikastetxeko Curriculum proiektuaren bidez egiten da. Hirugarren zehazpen maila talde edo maila batekin diharduen irakasle taldeari dagokio; programazioa osatzen eta esplizitazioa datza. Laugarren curriculum zehazpena zera da: hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleei egokitzea ikastetxeko curriculum-a zein programakuntzak.

Planteamendu honetan azter dezakegun bezala nahiko garrantzitsua da ikastetxean bertan kokatzen diren agente kurrikularrei dagokien zeregina eta lana. Baina lan tekniko

kurrikular honek eduki ba dauka beste erreferentziarik: Ikastetxeko Hezkuntz proiektua. Dokumentu honen bidez ikastetxe batek bere ezaugarri definitzaileak esplizitatzen ditu: bere izaera definitzen duten ezaugarri espezifikoak, bere hastapen eta xede nagusiak, eta hauei erantzuteko erakuntza ardatz eta hastapen kurrikular nagusiak. Dokumentu honen gestioa eta osaketa Hezkuntz komunitateari dagokio; ez bakarrik irakaslegoari. Beraz, zera esan dezakegu: hezkuntz une honetan ikastetxeek oso tresna egokia daukate bere komunitatearen balore eta xedeak identifikatzeko, hezkuntz proiektua, alegia. Zera esan nahi dugu, dokumentu honen eztabaida eta gestio demokratikoak ahalbidera dezake bertako komunitatearen eskakizunaren esplizitapena, ikastetxeko ihardueraren egokitzapena erretuz.

Honenbestez, orain artekoan ikastetxeak bere proiektu pedagogikoa esplizitatzeko dituen bi dokumentu identifikatu eta nabarmendu ditugu: Ikastetxeko Hezkuntz Proiektua eta Ikastetxeko Kurrikulum Proiektua.

Dokumentu-tresna hauek elementu dinamikotzat hartu behar ditugu. Ez dira errealitate geldiak eta mugatuak, egokigarriak eta dinamikoak baizik. Azken batean, dokumentu hauen helburu nagusietako bat gizartearen islada eta eskaera jasotzea izanik, gizarte berarekin batera bilakatu eta egokitu beharreko tresnak dira.

Azter dezagun Euskal Eskola Publikoaren Legeak zer dioen dokumentu-tresna hauei buruz:

### III. ATALBURUA PEDAGOGIAZKO AUTONOMIAZ

#### 45. atala.

Euskal eskola publikoa osatzen duten ikastetxeei pedagogiazko autonomia aitortzen zaie. Ikastetxeok, indarrean dagoen legediaren esparruan, legedi horrek ezarritako gutxienezko programen esparruan eta baliabide erabilgarrien mugapean, hezkuntza proiektua eta ikasketa-proiektua mamitzeko beharrezko erabakiak hartu ahal izango dituzte. Erabakiok ezin izango dute hezkuntza-elkarteko inorenganako bereizkeriarik eragin.

#### 46. atala

1. Ikastetxeko hezkuntza-proiektuak eskola-elkarteko arloek aukeratutako hezkuntza-mota adierazten du, eta ikastetxearen ihardueren bidez lortu nahi diren baloreak eta oinarritzko helburuak zehaztuko ditu.

Hezkuntza-proiektua bateratzailea izango da, bereizkeriarik eza eta hezkuntza-baterabilitzea izanik funtsezko baloreak.

2. Hezkuntza-proiektuan ondorengo zehaztasunak jasoko dira gutxienez:

a) Hezkuntza-helburuak zehazteko kontutan hartzen diren ingurunearen eta gainerako baldintzen zehaztapena.

b) Ikastetxearen iharduera mugatu duten oinarritzko helburuak eta lehentasunak; besteak beste, ondorengoak jasoko dira:

Ikasketa-proiektuan garatuko diren ikastetxearen curriculum-helburuak eta, beraien artean, pedagogi ildoak.

Eskolako bizitzan parte hartzeko modua, ikastetxearen iharduera arautzeko irizpide nagusiak jasoz; irizpide horiek antolakuntza- eta iharduera-araudian zehaztuko dira.

Ingurunekeo gizartearekiko lotura-harremanak

Ikastetxeak garatuko dituen proiektuak, eskola-elkarteko partaideen prestakuntzarakoak, hezkuntza-berrikuntzakoak, desberdintasunarekiko arretazkoak, ikastetxe eta erakundeekiko lankidetzakoak, edo epe erdiko-ra ikastetxearen hezkuntza-iharduera zehaztu dezaten gainerakoak.

Euskararen erabileraren normalkuntza lortzera bideratutako jarraipideak.

Berarizko lanbide-heziketako irakaskuntzak dituzten bigarren mailako heziketako ikastetxeetan arautu gabeko lanbide-heziketari buruzko xede eta orientabideak oharteman ahal izango dira.

3. Irakasleen prestakuntza ikastetxearen hezkuntza proiektuari eta irakaslekoaren ezaugarriei egokituak zaie.

#### 47. atala

Ikastetxearen ikasketa-proiektuak hezkuntza-proiektua garatzen du irakaskuntzaren arloan. Gutxienez, ondorengo edukiak izango ditu:

- a) Ikasleen beharrei egokitutako irakaskuntza-helburuak eta -edukiak, irakaskuntzaren alderdi guztietan, indarrean dauden irakaskuntza elebiduneko ereduak ikastetxean ezartzeari loturikoak barne.
- b) Irakaskuntza-edukien banaketa.
- c) Ikastetxeko irakasleen lanak jarraipena izango duela berma dezaten pedagogi eta irakas irizpideak.
- d) Irakas-metodologiaren eta ikas-materialeen alorrean egindako aukerak
- e) Hezkuntzako beharizan bereziei nola egingo zaien aurre.
- f) Ebaluaziorako irizpideen gauzatze eta osabetetzea.

Beraz, ikastetxeko hezkuntza komunitateak analizatu ditugun dokumentuen bidez bere hizkuntza asmo nagusiak esplizitatu behar ditu. Ezin dezakegu ahaztu Euskal Eskola Publikoaren Legeak bere 52. atalean «Ikastetxeetako ordezkari-organoren gorenari hezkuntza eskariari egokitutako hizkuntza-ereduak» ezartzeko proposamenak egiteko ahalmena ematen diela.

Hezkuntza komunitateak lehenik eta behin zein eredu ezarri behar den erabaki behar du. Bainan honekin batera, beste faktoreri buruzko hausnarketa egin behar da eta, aldi berean, zenbait erabaki funtsezko hartu behar dira, Garagorri-k (1993) hainbat galdera bota ditu aspektu honen inguruan:

«IKASTETXEKO HEZKUNTZA PROIEKTUA ETA HIZKUNTZA IKASTETXEARI BURUZKO GALDERAK:

- Zein izango da komunikazioko hizkuntza nagusia?
- Zein izango da aprendizaiarako hizkuntza nagusia?
- Noiz eta nola txertatuko dugu bigarren hizkuntza?
- Noiz eta nola txertatuko dugu atzerriko hizkuntza?
- Nola zehazten dugu lehen hizkuntzaren diseinua?
- Nola zehazten dugu bigarren hizkuntzaren diseinua?
- Nola zehazten dugu atzerriko hizkuntzen diseinua?
- Nola ebaluatuko ditugu lehen, bigarren eta atzerriko hizkuntzetan ikasleek dituzten komunikatzeko gaitasunak?
- Zer egingo dugu ikasleen jatorri soziolinguistiko ezberdinen aurrean?



IKASLE ETA GURASOEI BURUZKO GALDERAK:

- Zein da hauen lehen hizkuntza?
- Zein da hauen maila soziala eta kulturala?
- Nolakoa da euskal kulturarekiko integrazio maila?
- Zer-nolakoa da euskararekiko jarrera?

IRAKASLEEI BURUZKO GALDERAK:

- Zein da irakasleen lehen hizkuntza?
- Nolakoa da euskaraz hitzegiteko duten gaitasuna?
- Nolakoa da euskararen sistemari buruz duten ezaupide teorikoa?
- Nolakoak dira hizkuntzen metodologiei buruzko gaitasunak?
- Nolakoa da euskarari eta hizkuntz normalizazioari buruz duten jarrera?
- Prest al daude formakuntza saioetan parte hartzeko?

ESKOLAREN INGURUNEARI BURUZKO GALDERAK

- Nolakoa da euskararen ezaupidea eta erabilera eskolaren ingurunean (auzoa, herria, hiria)?
- Nolakoa da eskolaren eta gizartearen arteko harremana?»

Ikastetxeko ikasketa-proiektuak, galdera eta husnarketa puntu hauei erantzunez finkatzen diren hezkuntz-hastapenak, garatu beharko ditu.

## Erakuntzazko baliabideak

Erakuntzaren adierazgarritasuna nabarmentzen da ikastetxearen hezkuntza helburuak erdiestea erretzen eta bideratzen duen neurrian. Hau da, erakuntza moduak helburuak lortzeko baliabideak dira. Oso baliabide garrantzitsuak bestalde. Erakuntzazko faktoreak, hezkuntzaren kalitateari buruzko literatura osoan aipatuak agertzen dira, ikastetxeak eskaintzen duen kalitatearekin zuzenki erlazionatuak.

Gure ikastetxeen erakuntza sistema, baliabide baldintzatzailerik eduki badauka. Legeak esparru hau ere arautzen du, nahiko marku estua definituz. Maila orokorreko arauditik hasirik (LODE, LOGSE), eta Autonomiako legediarekin bukatuz ikastetxearen erakuntzari buruzko aipamenak zehatzeak eta ugariak dira.

Lan honetan, beste faktoreekin egin dugun bezala, Euskal Eskola Publikoaren legeak dioena aipatuko dugu, lege honetan gainerakoan jasotzen den araudia bildueta osatu egiten baita.

### V. IDAZPURUA

#### EUSKAL ESKOLA PUBLIKOKO IKASTETXEEN AUTONOMIAZ.

### II. ATALBURUA

#### EUSKAL ESKOLA PUBLIKOKO IKASTETXEEN ANTOLAKETA AUTONOMIA

##### 29. atala.

1. Ikastetxe bakoitzak, aitortua duen autonomiaz baliatuz eta lege honen 1.4 atalean adierazten diren arauen esparruan, bere antolakuntza- eta iharduera-araudia egin eta onartuko ditu. Araudi horretan, bertako organoen osakera, aginpideak eta hautatzeko modua jasoko dira, eta baita ikastetxearen iharduera onerako eta ikasketa-ekintzen rein administrazio- eta ekonomi jaurbidearen garapen egokia bermatzeko beharrezko jo daitezen erabaki guztiak ere.

2. Nolanahi ere, antolakuntza- eta iharduera-araudian ondorengoak zehaztu behar-ko dira:

a) Ikastetxearen antolakuntza- eta iharduera- egitura, behar izanez gero atalburu honetako ondorengo sailletako erabakiak osatuz.

b) Eskola-elkarteko kideen elkarbizitza eta elkarrekiko errespetua eta egoitzaren zein instalazioen erabilpen egokia berma dezaten arauak; arauok demokraziakoak izan behar dute, eskubideen errespetua eta eginbeharrak betetzea eskola-elkarteko kide guztien konpromezua izanik (...).

c) Ikasketen abaluzioen aurkako erreklamazioetarako bidea, lege honen 16.3 atalean jasotakoaren arabera.

3.- Antolakuntza- eta iharduera-araudia ordezkari-organoren gorenak onartu eta, hala badagokio, aldatu du, eta hezkuntza-administrazioari heleraziko dizkio beti ikastetxeak uki ditzakeen gaiak arautzen dituzten arau-erabakiekien bat datorren hezkuntza-administrazioak erabaki dezan

#### BIGARREN SAILA. ESKOLAREN ANTOLAKETAZ

#### 30. atala

1. Lege honek ukitzen dituen herri-ikastetxeek, gutxienez, honako aginte-organoa hauek izango dituzte:

Batzar-organoa:

- Ordezkaritza-organoa goren.
- Irakasle-klaustroa.
- Zuzendaritza-taldea
- Gurasoen batzarra.
- Ikasleek ikastetxearen kudeaketan izango duten partaidetza berezia maitatu dezan organoa.

Bakar-organoa:

- Zuzendaria.
- Ikasketa burua.
- Idazkaria, eta hala badagokio, administratzailea.

2. Ikastetxe bakoitzaren antolakuntza- eta iharduera-araudiak, aurrean zehaztutako gain, bestelako organorik ere oharteman ahal izango du.

3. Bakar-organoen agintaldia hiru urtekoa izango da. Hautapenezko batzar-organoa bi urtez behin berrituko dira, ikastetxearen antolakuntza- eta iharduera-araudiak kasu bakoitzerako ezar ditzen zehaztapenen arabera, epe horretan gerta daitezkeen hutsuneak betetzearen kaltetan gabe.

Legeak ondoko sailletan araupetzen ditu antolaketa-organoei dagozkienak.

Testuinguru baliabideak. O.C.D.E.-ren Eskolak eta irakaskuntzaren kalitateari buruzko txostenean (1990; erabilitako itzulpena, 1991) baliabideei buruz hainbat iradokizun egiten da. Horien artean, honakoa nabarmendu nahi dugu: «hezkuntza agintariak ziurtatu behar dute ikastetxe bakoitzeko eraikuntza eta giroa, aprendizazioa errezteko egokiak izan daitezkeen».

Baliabide ekonomikoak. Ikastetxeak eduki behar du bertan somatzen diren gutxienezko beharrei erantzuteko adina baliabide. Gastuaren arrazionaltasuna eta funtzionaltasuna lortzeko, oso garrantzitsutzat jotzen dugu ikastetxearen autonomia baliabide ekonomikoaren erabilpena erabakitzerakoan.

Ildo honetatik esperantzagarria iruditzen zaigu Euskal Eskola Publikoaren Legeak kudeaketa autonomiari buruz egiten dituen aipamenak.

Araudi honen arabera badirudi administrazioak ikastetxeak duen kudeaketa ekonomikoaren autonomia murrizta zabaltzeko asmotan dagoela. Honekin batera ikastetxeari kudeaketa proiektua eskatzen zaio; badirudi honen bidez ikastetxearen gestioa arrazionalizatu, eta kontrolatu ere, eginen dela.

Giza baliabideak: dozentek eta ez-dozentek. Hezkuntzaren kalitatearen erdiespenerako, irakaslearen papera funtsezkoa da. O.C.D.E.-ren (1991) txostenak dioten bezela «irakaslearen gaitasuna eta dedikazioa ezinbesteko betebeharra da kalitatezko hezkuntza lortzeko».

Dena den ere, lan honetan kalitateari dagozkion faktoreetan, elebitasunaren gertarari dagozkionak bereiziki azpimarratu nahi ditugu. Beraz, hel diezaigun analisi honi.

EIFE (Euskararen Irakaskuntza: faktoreen eragina) izeneko ebaluazio saio zabalaren (EIFE-1, 1983-84; EIFE-2, 1987; EIFE-3, 1988) emaitzen azterketan aipatzen denez, «... elementu inportantea ikasgelaz kanpoko hizkuntza da: ikaslearen erlazio-sarea (irakasleekin, idazkariarekin, lagunekin, etab.) euskarazkoa bada, askoz ere egoera hobean egongo da haur hori euskara bizi baten jabe egiteko». Izan ere, ikasgelaz kanpoko hizkuntza erlazio sarea, neurri handi batean, ikastetxeko pertsonalaren gaitasun linguistikoaren arabera da. Pertsonal euskalduna duten ikastetxeek, ikasgelaz kanpoko erlazio sarea euskaraz egituratzeko aurre baldintza egokiak ezartzen dituzte. Bestelako baldintzak dituzten ikastetxeetan, pertsonal euskalduna eta ez-euskalduna, hizkuntza sarearen egituraketa ezberdina izan daiteke. Beraz, eskolako bertako hizkuntza sareak eragin dezake «euskara bizi baten jabe egiteko» baldintzetan.

Lan honen beste pasarteetan aipatu dugun ikerketan ere (Etxague, 1992), zera erakusten dugu: «D» ereduak soilik duten ikastetxeetako ikasleek, «A» eta «D» ereduak dituzten ikastetxeetako ikasleek baino emaitza hobekak lortzen dituzte euskara errendimendu frogetan, ebaluatutako ikasle guztiak «D» eredukoak direlarik. Hau da, hizkuntza erlazio sarea euskalduna duten ikastetxeetako ikasleek, hizkuntza erlazio sarea erdaldunduagoa (edo erdalduna) duten ikastetxeetako ikasleek baino euskara errendimendu hobea dute. Honela gertatzen da irakaslearen euskal jatorria berdintsua izan arren.

Guzti honekin giza baliabideak euskalduntzeko beharra azpimarratu nahi dugu. Ildo honetatik aipamen berezia merezi du «2/1993 LEGEA, otsailaren 19koa, Euskal Herriko Autonomi Elkartearen Unibertsitateko kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoei buruzkoa», Lege hau Euskal Eskola Publikoaren Legearekin batera ezarria izan da, eta honen osagarria da. Besteak beste, irakaslearen hizkuntza normalkuntza arautzen du. Honela dio pasarte batean:

#### V. IDAZPURUA HIZKUNTZA NORMALKUNTZA

##### 49. atala.

1. (...) Euskal hezkuntza administrazioaren zerbitzupeko irakasle-lanpostu guztiek hizkuntza-eskakizuna zehaztuta izango dute. Hizkuntza-eskakizunak erabakiko du zein maila behar den izan euskaraz lanpostua bete eta bertan aritzeko. Hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa ez bada, euskaraz jakiteari merezimendu modura zenbaiterainoko balioa eman behar zaion zehazteko balioko luke.

Lege honetan aipatutakoa garatzeko, honako dekretua ezarri da:

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

47/1993 DEKRETUA, martxoaren 9koa, irakaspostuetarako hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun egunak zehazteko irizpideak finkatzen dituena (...).

Dekretuan hizkuntza eskakizun bi bakarrik dituen sistema taituzten da: 1 hizkuntza eskakizuna, euskarazko edo euskaraz eskolak ematen ez dituzten irakasleek bete ditzaketen lanpostuetarako, eta 2 hizkuntza eskakizuna, ematen dituztenentzat.

Dekretu honetan honakoak finkatzen dira: bere ezarpen eremua, eskakizunen mugaketa, eskakizunokin bermatu nahi diren hizkuntza helburuak, eskakizunak eta derrigortasunak ezartzeko arau orokorrak, eskakizunak egiaztatzeke erak eta salbuespenen araubidea. Ildo horretatik, jaretsi nahi diren helburuak lortzeko tresna dira zehazki zehazki finkatutako eskakizunen banaketa eta derrigortasun egunak; horregatik, 10 urteko denboraldian sartu dira, bosna urteko aldi bitan banatuta, horietako lehenengoa amaitzen denean ebaluazioa egingo delarik. Beste horrenbeste esan daiteke irakaslegoaren euskalduntze planari buruz, berariaz ematen baitaio malgutasuna, urtero aztertuko dela aurrikusita utziaz (...).

III. ATALBURUA.

HIZKUNTZA ESKAKIZUNEN BANAKETA ETA DERRIGORTASUNA

9. atala. Honako paradigma honen arabera ezarriko da araubide orokorreko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeetarako hizkuntza eskakizunen banaketa:

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntza/OHoko ikastetxeak:

EREDUA	1HE	2HE
A	11	3
B	4	10
D	1	13

Eredu bakoitzaren barruan hamalau zenbakiaren multiplo ez diren irakasle taldeen-tzak 2 hizkuntza eskakizunen kopurua, aurreko laukitik sortzen den heinekoa ezarrita ateratzen dena da.

Irakaskuntza Eratainetako ikastetxeak:

A EREDUA. 1HE Irakasle guztiak

Euskal Hizkuntza eta Literaturako irakasleak izan ezik

2HE Euskal Hizkuntza eta Literaturako irakasleak

D EREDUA. 2HE Irakasle guztiak (...).

Guretzat lege hau oso esperantzagarria da, Euskal Komunitate Autonomoko Hezkuntz Sistemaren euskaldunizazio osoa (ezagutza mailan behintzat) eragin dezakeelakoan gaude eta.

PROZESUAK AZPISISTEMA. EFIKAZIA

Orain arte ikastetxea sistemaren «sarrerak» azpisisistema aztertu dugu. Lehen esan dugun bezala azpisisistema hau erlazioz atuta dago Kalitatearen ardatza den funtzionaltasunarekin. Egindako azterketaren bidez zehaztu dugu zein den gizartearen eskakizuna,

elebitasunari dagokionean batez ere, eta zein faktore baldintzatzailek lotzen du ikastetxea ingurunearekin,

Behin testuinguru hau identifikaturik, gure hurrengo galdera zera da: zein da ikastetxe batek duen ahalbidea gizartearen eskakizunari erantzuteko? Galdera bere beste era batera formulaturik: zein azpisistemak egituratzen du ikastetxearen ahalmena funtzionaltasunak finkatzen dituen helburuak erdiesteko? Zeintzu dira hezkuntza sistema edo ikastetxe bat, efikazia izatea bermatzen duten baldintzak?

Galdera hauekin heltzen diogu bigarren faktoreari, efikazia alegia.

Gogoratu behar dugu efikazia, inguruko gizartearen xedeekin bat datozen hezkuntza helburuak betetzean datzala.

Ikastetxeak efikaziaz erantzuteko kontrola ditzakeen faktoreak, funtsean sistemaren «prozesuak» azpisisteman aurkitzen dira. Prozesu hauek sarrerak azpisistemak mugatutako autonomia espazioan gauzatzen dira. Hauen bidez ikastetxeak interpretatzen, osatzen eta egokitzen ditu «sarrera» azpisistemak ekartzen dituen hainbat faktore: ekonomiazko, erakuntza eta curriculum baliabideak batez ere.

Beraz, baliabide hauek oso zeregin garrantzitsua betetzen dute funtzionaltasuna eta efikazia lotzen. Hau da, prozesuen bidez ikastetxeak egiten duen erakuntza eta curriculum baliabideen interpretapenak eta garapenak, ingurunearen eskakizunari heltzea erreztuko dio, funtzionaltasuna sustatuz; eta, aldi berean, efikaziaz ihardutea ahalbideratuko dio

Lan honetan aurkezten dugun ereduari, prozesuak sistemaren baitan bi azpisistema nagusi nabarmendu ditugu: erakuntza eta curriculum azpisistemak. Biak elkarren eragile eta osagarriak dira: antolakuntza curriculumaren gauzapena erreztu eta bultzatu behar du; curriculum-ak antolakuntza sistemaz baliatu behar du errealtatean eragiteko; aldi berean bi sistemen arteko egokipena gauzatzen da.

Sistema honek ahalbideratzen dio ikastetxeari efikazia lortzea; finkatutako helburuak burutzea, alegia. Gómez Dacal-ek (1992) jasotzen duen bezala: «ikastetxearen efikazia ez da hainbeste lotzen asignatzen zaizkion baliabideekin, baliabide hauei ematen zaien orientazioarekin baizik»

## SARRERAK, PROZESUAK ETA PRODUKTUAK. EFIZIENTZIA

Lan honen hasieran efizientzia konzeptuari buruz esandakoak esan, honela defini dezakagu kontzeptu hau: ikastetxeak lortzen dituen helburuen, eta horretarako inbertitutako kostearen arteko erlazioa.

Beraz, efikazia eta efizientzia konzeptuak elkarren osagarriak dira: efikaziaz helburuak erdiesteko gaitasuna adierazten duen bitartean, efizientziak erdiespen hau nola lortzen den, zer kostea inbertitzen den, azaltzen du.

«Kostea/emaitzak» erlazio hobezina lortzea, azken batean efikazia mailarik handiena erdiesteari erantsitako arazoa da (Gomez Dacal, 1992).

Ikastetxe baten kostealemaitzak erlazioa (efizientzia) hobereztzeko ez dago, gure ustez, arau tinkorik ematerik. Hau da, efizientzia ezin da azaldu faktore zerrenda zehatz batekin; ezin da baieztatu efizientzia faktore jakin batzuri lotuta dagoenik. Kalitatearen dimentsio hau oso lotuta dago ikastetxe bakoitzaren egoera konkretuarekin, momentu konkretu batean. Oso dimentsio dinamikoa eta aldakorra da. Momentuan momentuko be-

harren araueraz ikastetxeak ebaluatu eta erabaki behar du zein faktore hoberendu behar den, inbertitzen den kostea gehiegizkoa izan ez dadin. Garrantzitsua da erlazio hau (kostea/emaitzak) arrazoizko mugetara ekartzea.

Ikastetxearen dinamika aginduko du momentu bakoitzean zein faktore hoberendu behar den. Une batean irakaslearen euskaldunizazioa izan daiteke, beste momentu batean gurasoak euskal kulturarekin motibatzea eta atxekitzea, beste momentuan ekitaldi extraeskolarrak euskalduntzea.

Dena den, Gómez Dacal-ek (1992), ikastetxe efizienteei buruz egindako ikerketa askotxo birpasa ondotik honela idazten du: «honenbestez, ikastetxe efizienteen karakterizazioa egiteko ez dugu hainbeste honelako edo halako aldagaien arabera jokatu behar (praktika hau desegokia ez bada ere); ikastetxe efizienteak bizi-espazioa sortzeko gaitasuna duten erakundeak dira. Espazio honek ikasleengan behar den energia (motibazioa, interesa, ahalegina, e.a.) duten jokabideak sortarazten ditu; hauen bidez ikasleak helburuak lortzeko diseinatutako ekitaldietan egiz inplikatu egiten dira. Inplikazio hau arrazoizkoa (metodoak, baliabideak, portaerak, e.a.) eta bakoitzaren ezaugarriekin bateragarria da (elkarrekintza tratamendua x nortasuna)».

Beraz, efizientziaren karakterizazioa lortzeko ez da aldagai zerrenda baten arabera jokatu behar. Efizientzia, hezkuntz ekitaldietan inplikatzeko bultzatzen duen giroa antolatzean datza.

Ildo honetatik jarraituz, ikastetxe efizienteen ezaugarri nagusia zera da: hezkuntz komunitatearen inplikazioa ikastetxeko proiektu pedagogikoarekin.

Ikastetxe elebidunari dagokionez, hezkuntza komunitateak ikastetxeko hizkuntz proiektuarekin identifikatu eta inplikatu behar du.

Bestalde, lan honetan aztertu dugun bezala ikastetxeko komunitateak hainbat tresna dauka bere proiektu pedagogikoa negoziatzeko, adosteko eta esplizitatzeko. Inplikazio tinkoa lortzeko proiektuaren gestio demokratikoa beharrezka da. Proiektu hauek bere helburua bete behar dute, hezkuntza asmoak esplizitatzeko eta hezkuntza ekintzaren gida izatea. Tresna hauek izan daitezke eskolaren egituraketaren ardatza. Elkarren arteko koherentzia lerro batez lotuak egon behar duten dokumentu hauekin finkatu behar ditugu ikastetxearen zimenduak.

## BIBLIOGRAFIA

- ALVAREZ MENDEZ, J.M. (1992): «La ética de la calidad». *Cuadernos de Pedagogía*, 199. 8-12.
- ALLAL, L. (1980): «Estrategias de evaluación formativa. Concepciones psicopedagógicas y modalidades de aplicación». *Infancia y aprendizaje*, 11. 4-22.
- ALLAL, L. (1991): *Vers une pratique de l'évaluation formative*. Bruselas: De Boeck Université.
- ARGUESO, M. A. (1988): «Factores sociolingüísticos en la adquisición del Euskera en el País Vasco». En *II Congreso Mundial Vasco. Congreso de la Lengua Vasca, Tomo II*. Vitoria: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
- ARIAV, T. (1991): «Growth in teachers' curriculum knowledge through the process of curriculum analysis». *Journal of Curriculum and Supervision*, 6, 3. 183. 201.
- ARNAU, J. (1980): *Escola i contacte de llengües*. Barcelona: Ceac.
- ARNAU, J. (1985): «Educación en la segunda lengua y rendimiento escolar: una revisión de la problemática general». En SIGUAN, M. (Coor): *Enseñanza en dos lenguas y resultados escolares*. Barcelona: I.C.E.
- ARNAU, J.; COMET, C.; SERRA, J. M.; VILA, I. (1992): *La educación bilingüe*. Barcelona: I.C.E./Horsori.
- ARNBERG, L. (1981): *The effects of bilingualism on development during early childhood: A Survey of the Literature*. Linköping: Studies in Education Reports, 5, Department of Education, Linköping University.
- ARREGI, F. (1984): «Elebitasuna». *Isilik*, 4. 12-16.
- ATUTXA, K. (1975): *Particularidades del bilingüismo en Vascongadas. Bilingüismo y educación*. Barcelona: Teide.
- ATUTXA, K. (1976): *Desarrollo lingüístico, dominio lector y capacidad creativa de los niños bilingües*. Tesis doctoral inédita. Universidad de Barcelona.
- AYERBE, P. (1983): «Situación general y escolar del bilingüismo en Euskadi». En SIGUAN, M.: *Lenguas y educación en el ámbito del Estado Español* Universidad de Barcelona.
- AZURMENDI, M. J. (1983): *Elaboración de un modelo para la descripción sociolingüística del bilingüismo y su aplicación parcial a la comarca de San Sebastián*. Tesis Doctoral inédita. U.P.V./E.H.U.
- BAEZ, B. de la (1987): *Evaluación psicoeducativa de centros escolares: estrategias docentes, contexto organizativo y productividad*. La Laguna (Tenerife): Secretariado de Publicaciones.
- BAEZ, B. de la (1991): «El movimiento de escuelas eficaces: implicaciones para la innovación educativa». *Revista de Educación*, 294. 407-426.
- BARBERA, V. (1990): *Método para evaluación de centros (dirigido a profesores y asociaciones de padres)*. Madrid: Escuela Española.
- BARBIER, J. M. (1993): *La evaluación de los procesos de formación*. Barcelona: Paidós / M.E.C.
- BARTOLOME, M. y otros. (1988): «Análisis de los modelos institucionales de evaluación de centros de Cataluña». En *Actas del IV seminario de modelos de investigación educativa*. Universidad de Santiago de Compostela.
- BORRELL, N. (1990): «La evaluación de los Centros Educativos». Ponencia presentada en las *III Jornadas Estatales*

- del Forum Europeo de Asministradores de la Educación.* Donostia.
- BROADFOOT, R. (comp.). (1984): *Selection, certification and control. Social issues in educational assessment.* Londres: Falmer Press.
- BUTEAU, M.F. y Gougeon, H. (1986): «Comparación entre tres programas de enseñanza de una segunda lengua». *Infancia y aprendizaje*, 33. 37-61.
- CAJIDE, J. y Tejedor, J. (1988): «Modelos de funcionamiento institucional y calidad de los centros educativos». En *Actas del IV Seminario de Modelos de Investigación Educativa*: Universidad de Santiago de Compostela.
- CARDONA, J. (1991): «Un nuevo modelo de evaluación de centros educativos. Fundamentación teórica, peculiaridades y planificación». *A distancia*, octubre. 13. 17
- CASANOVA, M. A. (1988): «Evaluación del diseño curricular». *Cuadernos de Pedagogía*, 157. 50-53.
- CASANOVA, M. A. (1992): *La evaluación garantiza de calidad para el Centro Educativo.* Zaragoza: Edelvives.
- CASANOVA, M. A. y otros. (1991): *Curso de formación para equipos directivos. 5 unidad temática. La evaluación del centro educativo.* Madrid: M.E.C.
- CENOZ, J. (1990): «Hezkuntza elebiduna». *Zutabe*, 22. 148-161.
- CENOZ, J. (1992): *El papel del bilingüismo en la adquisición de una lengua extranjera: el caso del aprendizaje del inglés en Gipuzkoa.* Tesis doctoral inédita. U.P.V./E.H.U.
- COBARRUBIAS, J. (1988): «Normalización y planificación lingüística en el País Vasco», *II Euskal Mundu Biltzarra. Euskara Biltzarra. II tomo.* Eusko Jauriaritza: Gasteiz. 145-172.
- COHEN, A. y LAOSA, L.M. (1976): «Second language instruction: some research considerations». *Journal of Curriculum Studies*, vol.8, 2. 149-166.
- COLOM, A. J. (1988): «La calidad de la educación desde la teoría pedagógica y la historia». *Bordón*, vol 40, 2. 163-175.
- CUMMINS, J. (1979): «Linguistic Interdependence and the Educational Development of Bilingual Children». *Review of Educational Research*, 49 (2). 222-251.
- CUMMINS, J. (1981): «The role of primary language development in promoting educational success for language minority students». En *Schooling and Language Minority Students.* LA: California State University. 3-50.
- CUMMINS, J. (1983): «Interdependencia lingüística y desarrollo educativo en los niños bilingües». *Infancia y aprendizaje*, 21. 37-61.
- CUMMINS, J. (1988): «Research and theory in bilingual education: The basque situation in international perspective». *II Euskal Mundu-Biltzarra. Euskararen Biltzarra, III Alea.* Gasteiz: Eusko Jauriaritzaren argitalpen zerbitzu nagusia. 197-210.
- CUMMINS, J.& SWAIN, M. (1987): *Bilingualism in education.* London: Longman.
- CHADWICK, G. B. y RIVERA, N. (1990): *Evaluación formativa para el docente.* Paidós, Barcelona.
- DARDER, P. i LOPEZ, J.A. (1985): *Elements d'organització i avaluació del centre educatiu de'EGB.* Barcelona: Rosa Sensat, Edicions 62.
- DEL RINCON, D. y DEL RINCON, B. (1988): «Evaluación del clima institucional en centros de E.G.B». En *Actas del IV seminario de modelos de investigación educativa* Universidad de Santiago de Compostela.
- DIAZ, M.D. (1991): *La evaluación, actividad inevitable e intrínsecamente humana.* Sevilla: Universidad de Sevilla.
- DOCKRELL, W. y HAMILTON, D. (1983): *Nuevas reflexiones sobre la investigación educativa.* Madrid: Narcea.
- ELEXPURU, I. y otros. (1992): *Autoconcepto y Educación. Teoría, medida y práctica pedagógica.* Vitoria: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- ELLIOT, J. (1990): *La investigación educativa.* Madrid: Morata.
- ELLIOT, J. (1990): *La investigación-acción en educación.* Madrid: Morata.
- ESCODERO ESCORZA, T. (1990): *¿Se pueden evaluar los centros educativos y sus profesores?.* Zaragoza: I.C.E.
- ESPINOSA, A. (1992): *Reformas, inspección y evaluación educativas.* Madrid: Escuela Española.
- ESTEBAN FRADES, S. (1988): *Claves para transformar y evaluar los centros: más allá y más acá de las reformas.* Madrid: Popular.



- ESTEBAN, M. C. y URBANO, J. (1990): «Calidad en el centro escolar». *Cuadernos de Pedagogía*, 186. 73-76.
- ETXAGUE, X. (1992). *Nafarroako «D» eredu*, 8. mailako ikasleen Euskara errendimendua. Hainbat aldagai eskolarren eragina. Euskal Herriko Unibertsitatea: argitaratu gabeko tesi doktoral.
- ETXANIZ, J. eta LUKAS, J.F. (1988): «Axular Lizeoa: B ereduaren eredu bat». *Eskola*, 20/27. 46-49.
- ETXEBERRIA BALERDI F. eta AIERBE, P. (1988): «Eskolako euskal elebitasunaren lkerketa (1997 4-1987)». *Actas del II Congreso Mundial Vasco*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. 129-136.
- ETXEBERRIA BALERDI, F. eta beste. (1991): *B ereduaren deskribapena eta tipologia*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- ETXEBERRIA SAGASTUME, F. (1984): «Irakaskuntz elebidunaren helbururak». *Isilik*, 4. 39.
- ETXEBERRIA SAGASTUME, F. eta BAXOC, E. (1990): «Euskara irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren azterketa». *Tantak*, 3. 9- 28.
- Euskara Zerbitzua. Eusko Jaurlaritza. (1991): *Eskola Hiztun Bila*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco. (1990): *10 años de educación bilingüe*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco. (1989): *La lengua vasca en la normativa escolar vigente*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- FANTINI, A. E. (1982): *La adquisición del lenguaje en un niño bilingüe*. Barcelona: Herder.
- FERNANDEZ PEREZ, M. (1986): *Evaluación y cambio educativo. Análisis cualitativo del fracaso escolar*. Madrid: Morata.
- FERNANDEZ SIERRA, J. y SANTOS GUERRA, M. A. (1992): *Evaluación cualitativa de programas de educación para la salud. Una experiencia hospitalaria*. Archidona (Málaga): Aljibe.
- FISHMAN, J. A. (1976): *Bilingual education*. Rowley: Newbury House.
- FISHMAN, J. (1988): «Hizkuntz hedapena eta arriskuan dauden hizkuntzetarako hizkuntz politika». *Jakin*, 48. 5-21.
- FUENTES, A. y DE LA ORDEN, A. (1988): «Incidencia de variables institucionales en variables de aula». En *Actas del IV Seminario de Modelos de Investigación educativa*. Santiago de Compostela: Universidad de Santiago de Compostela.
- GABINA, J. J. eta beste. (1986): *E.I.F.F.E. Euskararen irakaskuntza: faktoreen eragina*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- GARAGORRI, X. (1993): *Graduondoko Unibertsitate Diploma. «Ikastetxeen antolakuntza, zuzendaritza eta gestioa»*. Gaia: *Hizkuntzak eta Eskola*. Fotokopien bidez banatutako apunte mekanografiatuak (apuntes mecanografiados).
- GARCIA HOZ, V. (1975): «Una pauta para la evaluación de centros y profesores». *Revista Española de Pedagogía*, 130. 117-150.
- GARCIA HOZ, V. y Medina, R. (1987): *Organización y gobierno de centros educativos*. Rialp, Madrid.
- GARCIA RAMOS, J. M. (1989): *Bases Pedagógicas de la Evaluación. Guía práctica para educadores*. Madrid: Síntesis.
- GARCIA RAMOS, J. M. (1989): *Bases pedagógicas de la evaluación*. Madrid: Síntesis.
- GARRIDO, P.; JABONERO, M. y RIVERA, D. (1988): «Evaluación externa del centro docente: AUDO/G». En *Actas del IV Seminario de Modelos de Investigación Educativa*. Universidad de Santiago de Compostela.
- GODD, J. A. (1988): *Knowledge and control in the evaluation of educational organizations*. Deakin University Press.
- GOETZ, J.P. y LECOMPTE, M.D. (1990): *Etnografía y diseño cualitativo en investigación educativa*. Madrid: Morata.
- GOMEZ DACAL, G. (1992): *Centros Educativos Eficientes*. Barcelona: PPU.
- GORDILLO, V. (1988): «Evaluación del centro a través de la satisfacción profesional del profesor: aspectos diferenciales y aspectos comunes». En *Actas del IV Seminario de Modelos de Investigación Educativa*. Universidad de Santiago de Compostela.
- GOYETTE, G. y LESSARD-HERBET, M. (1988): *La investigación-acción*. Barcelona: Laertes.
- ISAACS, D. (1977): *Cómo evaluar los centros educativos*. Pamplona: Eunsa.
- Joint Committee On Standarss For Educational Evalu. (1988): *Normas de*

- evaluación para programas, proyectos y material educativo.* México: Trillas.
- LAFORCADE, P. D. (1979): *Evaluación de los aprendizajes.* Madrid: Cincel.
- MARTINEZ SANCHEZ, A. y otros. (1988): *El proceso de evaluación de un centro educativo: La Escuela Universitaria de Trabajo Social de Valencia.* Valencia: Generalitat Valenciana.
- MARTINEZ, J. y SALINAS, D. (1988): *Programación y evaluación de la enseñanza: problemas y sugerencias didácticas.* Consorci D'editors Valencians, S.A., Valencia.
- M.E.C /B.O.E. (1989): *Ley Orgánica del Derecho a la Educación y disposiciones reglamentarias.* Madrid: M.E.C / B.O.E.
- M.E.C. (1989): *Diseño Curricular Base.* M.E.C., Madrid.
- M.E.C. (1989): *Libro Blanco para la Reforma del Sistema Educativo.* Madrid: M.E.C.
- M.E.C. (1990): *Ley Orgánica de Ordenación General del Sistema Educativo.* Madrid: M.E.C.
- M.E.C. (1992): *Materiales para la reforma (Cajas Rojas): educación infantil, educación primaria, educación secundaria.* M.E.C., Madrid.
- M.E.C.. (1989): *Diseño Curricular Base.* Madrid: M.E.C.
- MESTRES, J. (coord). (1988): «Como mejorar centros educativos. Técnicas de evaluación dinámica y cualitativa». En *Actas del IV Seminario de Modelos de Investigación Educativa.* Universidad de Santiago de Compostela.
- MOOS, R.H.; MOOS, BS. & TRICKEI-T, E.J. (1989): *Escalas de clima social.* Madrid: TEA.
- MORENO, J. M. (1992): *Los exámenes: un estudio comparativo. Graduación secundaria y acceso en seis países occidentales.* Madrid: FCE.
- MUÑOZ ARROYO, A. (1978): *Valoración del rendimiento de centros docentes de EGB.* I.C.E de Extremadura. VI Plan Nacional de Investigaciones del INICIE
- NIETO, J. y otros. (1977): *Evaluación de profesores y centros de bachillerato.* Madrid: M.E.C.
- O.C.D.E. (1991): *Escuelas y calidad de la enseñanza. Informe internacional.* Barcelona: Paidós- M.E.C.
- OLAZIREGI, I eta SIERRA, J. (1989): *E.I.E.E.2. Euskararen irakaskuntza: faktoreen eragina.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza.
- OLAZIREGI, I. eta SIERRA, J. (1986): *E.I.F.E. Euskararen irakaskuntza: faktoreen eragina.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza.
- OLAZIREGI, I. eta SIERRA, J. (1991): *H.I.N.E.: OH.O. 8. mailaren azterketa.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza.
- ORDEN, A. de la. (1988): «Factores de eficacia escolar: una línea de investigación didáctica». *Bordón*, 264.
- ORDEN, A. de la. (1988): «La calidad de los centros educativos, asunto para un congreso. La calidad de la educación». *Bordón*, vol. 40, 2. 149-161.
- PEREZ JUSTE, R. y MARTINEZ ARAGON, L. (1989): *Evaluación de centros y calidad educativa.* Madrid: Cincel.
- PEREZ LOPEZ, J. A. (coord). (1986): *Renovación metodológica y organizativa en el C.P. Ibaizabal.* Bilbao: documento fotocopiado.
- POPKIEWITZ, Th. (1988): *Paradigma e ideología en investigación educativa. Las funciones sociales del intelectual.* Madrid: Mondadorj.
- POSTIC, M. y DE KETELE, J. M. (1992): *Observar las situaciones educativas.* Madrid: Narcea.
- RIES, HUGUES, SAER. (1932): *El bilingüismo y la educación.* Madrid: Espasa Calpe.
- RODRIGUEZ DIEZ, B. (1988): «Modelo de evaluación externa». En *Actas del IV Seminario de Modelos de Investigación Educativa.* Universidad de Santiago de Compostela.
- RODRIGUEZ DIEZ, B. (1992): *Pautas para la evaluación de la eficacia de los centros: guía práctica.* Madrid-Gijón: Júcar.
- ROSALES, C. (1990): *Evaluar es reflexionar sobre la enseñanza.* Madrid: Narcea.
- ROTGER, B. (1990): *Evaluación formativa.* Madrid: Cincel.
- SABIRON, F. (1990): *Evaluación de centros docentes.* Zaragoza: Central de Ediciones.
- SAEZ, M.J. (1991): «Contribución de la evaluación al desarrollo curricular». *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 10. 153-161.
- SANCHO, J. M. (1990): *Los profesores y el curriculum.* Barcelona: ICE / Horsori.
- SANTOS, M. A. (1988): «Patología general de la evaluación educativa». *Infancia y aprendizaje*, 41. 143-158.
- SANTOS, M. A. (1990): *Hacer visible lo cotidiano. Teoría y práctica de la*

## HEZKUNTZAREN KALITATEA ETA ELEBITASUNA

- evaluación cualitativa de los centros escolares*. Madrid: Akal.
- SANTOS, M. A. (1993): *La evaluación, un proceso de diálogo, comprensión y mejora*. Málaga: Aljibe.
- SCHEREMER, O.E. (1991): «The Teacher: A category in curriculum evaluation». *Studies in Educational Evaluation*, vol 17, 1. 23-41.
- SIERRA, J. (1991): «La inmersión y la enseñanza bilingüe en el País Vasco». *C.L. & E*, 10. 47-57.
- SIGUAN, M. (1985): «Enseñanza en dos lenguas y resultados escolares. Una interpretación sociocultural». In SIGUAN, M (coord): *Enseñanza en dos lenguas y resultados escolares. IX Seminario sobre Educación y Lenguas*, Barcelona: ICE.
- SIMONS, H. y ELLIOTT, J. (1986): *Rethinking appraisal and assessment*. Milton Keynes: Open University Press.
- STUFFLEBEAM, D. L. y SHINFIELD, A.J. (1987): *Evaluación sistemática. Guía teórica y práctica*. Barcelona: Paidós/M.E.C.
- TENBRINK, T. D. (1981): *Evaluación: guía práctica para profesores*. Madrid: Narcea.
- VILLAR, L. M.; MARCELO, C. y GARCIA, E. (1988): «Evaluación del clima institucional». *Actas del IV Seminario de Modelos de Investigación Educativa*. Universidad de Santiago de Compostela.
- WEISS, C. H. (1982): *Investigación evaluativa*. México: Trillas.
- WILSON, J. D. (1992): *Cómo valorar la calidad de la enseñanza*. Barcelona: Paidós.
- WOODS, P. (1987): *La escuela por dentro*. Barcelona: Paidós-M.E.C.